

## Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,  
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3218

AGINDUA, 2010eko ekainaren 10eko, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bidez, hirugarren aldiz aldatzen da turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen agindua.

Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen 2006ko maiatzaren 17ko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Euskadiko turismoaren garapena bultzatzeko eta eragile publikoen eta pribatuen sustapen-programamak babesteko, eta Euskadik merkatuetan turismo-jomuga gisa duen lekua sendotzeko sortuda. Horren ondoren, 2008ko otsailaren 25eko Aginduaren eta 2009ko otsailaren 4ko Aginduaren bidez aldatu zen, laguntzen programa Euskadirentzako Sustatzeko eta Merkaturatzeko 2010-2013ko Planera eta turistei informazioa emateko sistema berrietara egokitzeko.

Gaur egun, Marketin Plan berria abian jarri ondoren, eta laguntza-programa Plan horretan ezarritako ildo estrategikoetara egokitzeo, Aginduaren artikuluetan hainbat aldaketa egin behar direla egiaztatua. Hartutako irizpideen bidez, honako helburu hau lortu nahi da: kalitatea, berrikuntza, kudeaketan zein komunikazioan teknologia berriak txertatzeko aukera, prestakuntza, sustapen-eredu eguneratuagoak eta euskal turismoaren nazioartekotza azpimarratzea.

Horren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

**Lehenengo artikulua.**— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 1. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«Agindu honen xedea laguntza ekonomikoen programa arautzea da, honako hauek babesteko: «Euskadi, goza ezazu» marka duten turismoa sustatzeko programa orokorrak eta/edo eskuliburuan jasotako aplikazioak, turismo-proiekzio handiko ekitaldi bereziak, eta Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Marketin Planean zehaztutako produktuen merkaturatzea.

## Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3218

ORDEN de 10 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación Comercio y Turismo, de tercera modificación de la Orden por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística.

La Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, que regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística surge para impulsar el desarrollo turístico de Euskadi apoyando a los programas de promoción de los agentes públicos y privados y fortalecer la presencia de Euskadi como destino turístico en los mercados. Posteriormente, fue modificada por Orden de 25 de febrero de 2008 y por Orden de 4 de febrero de 2009, al objeto de adecuar el programa de ayudas a la puesta en marcha del Plan de Marketing y Comercialización para Euskadi 2010-2013, así como a los nuevos sistemas de información al turista.

Actualmente, una vez puesto en marcha el nuevo Plan de Marketing y con el objeto de adecuar este programa de ayudas a las líneas estratégicas marcadas en dicho plan, se ha constatado la necesidad de llevar a cabo determinadas modificaciones en su articulado. Los criterios que se han adoptado pretenden conseguir los siguientes objetivos: incidir en la calidad, en la innovación, en la incorporación de nuevas tecnologías tanto en la gestión como en la comunicación, en la formación, en modelos más actualizados de la promoción y en la internacionalización del turismo vasco.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo primero.**— Se modifica el artículo 1 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«El objeto de la presente Orden es regular el programa de ayudas económicas para el apoyo a programas globales de promoción turística bajo la marca «Euskadi saboréala» y/o las distintas aplicaciones recogidas en su manual, a eventos singulares de gran proyección turística y a la comercialización de productos definidos en el Plan de Marketing de la Viceconsejería de Comercio y Turismo.

Marketin Planaren arabera, produktuak honela sailkatuta daude:

- «A» lehentasuneko produktuak:

– Touringa: Euskadi osoa edo zati bat paisaiaren, herrien, kulturaren eta jendearen bidez esploratzeko eta ezagutzeko bidaiaiak; gutxienez 5 gau igarotzen dira leku desberdinatan, eta autoa erabiltzen da bidaiatzeko.

– Gastronomia eta ardoak: motibazio nagusi gisa Euskadiko esperientzia gastronomikoez eta enologiko-ez gozatzea duten bidaiaiak.

– City break-ak: hiri bat 2 edo 3 egunetan ezaugtzea eta esploratzeko, eta bertan ongi pasatzeko bidaiaiak.

– Bileren turismoa: alderdi profesionalei edo sozi-alei lotutako interes komuneko alderdiak aztertzeko biltzen diren pertsona taldeentzako bidaiaiak.

- «B» lehentasuneko produktuak:

– Landakoa: landa-esparruko ingurune soziokulturalarekiko harremana experimentatzeko bidaiaiak.

– Natura eta abentura: ingurune naturalarekiko harremana experimentatzeko eta/edo bertan jarduerak egiteko bidaiaiak.

– Kultura eta ekitaldiak: leku bateko kulturas-espertizie eta kultura-adierazpenez gozatzeko bidaiaiak».

**Bigarren artikulua.**— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 2.A, 2.A.1.a), 2.B, 2.B.1.a), 2.B.1.1 eta 2.C idatz-zatiak aldatu dira eta 3. artikuluaren 4. puntuari e) eta f) idatz-zatiak erantsi zaizkio. Horren ondorioz, honela geratu dira idatzita idatz-zati horiek:

«2.A.— «Euskadi, goza ezazu» marka duten turismoa sustatzeko programa orokorrak eta/edo eskuliburu-ruan jasotako aplikazioak babestea.

Ondoren adieraziko diren idatz-zatiako jardunak nahitaez sartu beharko dira programa horietan:

– Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Marketin Planean zehaztuta eta Sailburuordetzaren web-orrian ([www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo)) deskribatuta dauden turismoaren marketin eta sustapenerako jardunak, eta Sailburuordetzak bultzatutako Turismoa Dinamizatzeko Planen barruko jardunak.

– Ferietara eta jardunaldietara joatean, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak parte hartzen badu, Sailarekiko koordinazioa beharko da.

– Sustapen-materiala lantzea; ahal bada, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (IKTB) eta turistei informazioa emateko sistema be-

Según el Plan de Marketing los productos están clasificados en:

- Productos de prioridad «A»:

– Touring: viajes para explorar y descubrir toda o una parte de Euskadi a través de su paisaje, de sus pueblos y su cultura, de su gente, pernoctando por lo menos 5 noches en distintos lugares y utilizando el coche como medio de desplazamiento.

– Gastronomía y vinos: viajes cuya motivación principal es disfrutar de las experiencias gastronómicas y enológicas de Euskadi.

– City breaks: viajes para disfrutar, descubrir y explorar una ciudad en 2/3 días.

– Turismo de Reuniones: viajes para el encuentro de grupos de personas que se reúnen para tratar aspectos de interés común vinculados a aspectos profesionales o sociales.

- Productos de prioridad «B»:

– Rural: viajes para experimentar el contacto con el entorno sociocultural en el medio rural.

– Naturaleza y aventura: viajes para experimentar el contacto con el medio natural y /o la práctica de actividades en su entorno.

– Cultura y eventos: viajes para disfrutar de experiencias y expresiones culturales de un lugar».

**Artículo segundo.**— Se modifican los apartados 2.A, 2.A.1.a), 2.B, 2.B.1.a), 2.B.1.1 y 2.C y se añaden los apartados e) y f) al punto 4 del artículo 3 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactados en los siguientes términos:

«2.A.— Apoyo a Programas Globales de Promoción Turística bajo la marca «Euskadi saboréala» y/o las distintas aplicaciones recogidas en su manual.

Estos programas deberán incluir necesariamente actuaciones de los apartados que seguidamente se señalan:

– Actuaciones de marketing y promoción turística definidas en el Plan de Marketing de la Viceconsejería de Comercio y Turismo, y cuya descripción aparece en la Página web de la Viceconsejería, [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo), y las actuaciones incluidas dentro de los Planes de Dinamización Turística impulsados por la Viceconsejería.

– En la asistencia a ferias y jornadas, y cuando participe el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, esta deberá ser coordinada con el mismo.

– Elaboración de material promocional preferentemente soportado en nuevas tecnologías de la información y de la comunicación (NTIC), y sistemas in-

rritzaireak (web-orrien garapena, bezeroak leialtzeko sistemak, gailu mugikorrak eta abar) erabiliko dira».

«2.A.1.– Onuradunak:

a) Erakunde publikoak (toki-erakundeak, mancomunitateak, koadrilak, etab.), turismoa sustatzen duten erakundeak, toki-korporazioek sustatutako garapen-agentziak eta landa-garapenerako elkartea.

Jardueraren eremu geografikoa beti berdina badute, udalerriaz gaindiko erakundeei dagokienez, eskabide bat baino ez da onartuko, eta eskatailearen turismo-izaera nagusia eta Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Marketin Planean zehaztutako jardunekiko atxikimendu handiagoa izango dira lehentasunezkoak».

«2.B.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora proiekzio turistiko handia duten ekitaldi bereziak bastea.

Ondoren adieraziko diren jardunek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

– Marketin Planean zehaztutako lehentasunezko merkatuetan (Euskadin izan ezik) egindako eta Sailburuordetzaren web-orrian ([www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo)) deskribatutako jardunak, ekintzaren berezitasuna Euskadiko turismo-jomuga edo turismo-produktu bat (ahal bada, gastronomía) sustatzeko bide bat denean.

– Euskadin egindako jardunak, turismo-pakete bat (hau da, ekitaldira joateko eskubidea eta gaualdi bat gutxienez) eskaintzen dutenean.

Herriko edo udalerriko urteko jaien barruan egiten diren ekitaldiak deialdi horretatik kanpo geratuko dira».

«2.B.1.– Onuradunak:

a) Erakunde publikoak (toki-erakundeak, mancomunitateak, koadrilak eta abar), turismoa sustatzen duten erakundeak, toki-korporazioek sustatutako garapen-agentziak eta landa-garapenerako elkartea.

Jardueraren eremu geografikoa beti berdina badute, udalerriaz gaindiko erakundeei dagokienez, eskabide bat baino ez da onartuko, eta eskatailearen turismo-izaera nagusia eta Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Marketin Planean zehaztutako jardunekiko atxikimendu handiagoa izango dira lehentasunezkoak».

«2.B.1.1.– Laguntzaren zenbatekoa:

– Marketin Planean zehaztutako lehentasunezko merkatuetan (Euskadin izan ezik) egindako jardunen kasuan: onartutako gastu garbiaren % 50, antolamendu eta sustapen gisa, erakunde onuradun bakoitzeko gehienez ere 30.000 euroraino.

novadores de información al turista (desarrollos web, sistemas de fidelización de clientes, dispositivos móviles, etc.)».

«2.A.1.– Entidades beneficiarias:

a) Instituciones públicas (entidades locales, mancomunidades, Cuadrillas, etc.), entes promotores de turismo, agencias de desarrollo promovidas por corporaciones locales y asociaciones de desarrollo rural.

En el caso de las entidades supramunicipales cuyo ámbito geográfico de actuación sea esencialmente el mismo, solo será admisible una única solicitud primándose el mayor carácter turístico del solicitante y el mayor alineamiento con las actuaciones definidas en el Plan de Marketing de la Viceconsejería de Comercio y Turismo».

«2.B.– Apoyo de eventos singulares con gran proyección turística fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Serán subvencionables las actuaciones que seguidamente se señalan:

– Actuaciones realizadas en los mercados prioritarios definidos en el Plan de Marketing, a excepción de Euskadi, y cuya descripción aparece en la Página web de la Viceconsejería, [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo), cuando la singularidad de la acción constituya un medio para la promoción de un destino o producto turístico de Euskadi, preferentemente la gastronomía.

– Actuaciones realizadas en Euskadi, cuando ofrezcan un paquete turístico, es decir, el derecho de asistencia al evento y, por lo menos, una noche de alojamiento.

Quedarán excluidos de esta convocatoria los eventos celebrados dentro de las diferentes fiestas anuales de la localidad o municipio».

«2.B.1.– Entidades beneficiarias:

a) Instituciones públicas (entidades locales, mancomunidades, Cuadrillas, etc.), entes promotores de turismo, agencias de desarrollo promovidas por corporaciones locales y asociaciones de desarrollo rural.

En el caso de las entidades supramunicipales cuyo ámbito geográfico de actuación sea esencialmente el mismo, solo será admisible una única solicitud primándose el mayor carácter turístico del solicitante y el mayor alineamiento con las actuaciones definidas en el Plan de Marketing de la Viceconsejería de Comercio y Turismo».

«2.B.1.1.– Importe de la ayuda:

– En el caso de actuaciones realizadas en los mercados prioritarios definidos en el Plan de Marketing, a excepción de Euskadi: 50% del gasto neto admitido, en concepto de organización y promoción, con un importe máximo de 30.000 euros por entidad beneficiaria.

– Euskadin egindako jardunen kasuan: onartutako gasto garbiaren % 50, antolamendu gisa, erakunde onuradun bakoitzeko gehienez ere 15.000 euroraino».

«2.C.– Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzen Marketin Planean zehaztutako eta Sailburuordetzen web-orrian ([www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo)) deskribatutako produktuen merkaturatzea.

Aurkeztrutako proiektuetan, datozen 2 urteetarako plan estrategiko eta operacional bat izan beharko da nahitaez. Plan horretan, jomuga eta helburuak, eta helburu horiek lortzeko aurreikusitako estrategiak zehaztuko dira».

«4.– Honako hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

e) Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sareari atxikitako erakundeen turismo-argitalpenak lantzeko gastuek, justifikatzeko gaur egungo Hitzarmenaren bitarbez aurkeztu direnek.

f) Sustapen-oparietarako gastuak».

**Hirugarren artikulua.**– Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 6. artikuluko 1. eta 2. puntuak aldatu dira, eta artikulu horri f) paragrafoa erantsi zaio. Horren ondorioz, honela geratu dira idatzita:

«1.– Agindu honetan bildutako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango dira, administrazio-proceduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren arabera (22. EHAA, 2008ko urtarrilaren 31koa).

Aukeratutako izapidea telematikoa bada, eskabide-eredua eskuratzeko, eskabide hori Administrazioan aurkezten, espidienterako sarbidea izateko eta beste hainbat izapide egiteko, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean sartu beharko da, behin Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpenaren bitarbez laguntzen dei-aldia egin ondoren.

Erakunde eskatzailea ordezkatzen legezko gaitasuna duen pertsonaren baimendutako sinadura elektronikoaz gain, eskabidearekin batera aurkezten beharreko dokumentazio guzia eta Administrazioak eska dezakeen dokumentazioa aurkeztuko da eskabidearekin batera, turismo-arloko administrazio-proceduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuan xedaturikoaren arabera».

«2.– Aurreko aukeraren alternatiba gisa, Turismo Zuzendaritzara zuzendutako eskariaren bitarbez ere

– En el caso de actuaciones realizadas en Euskadi: 50% del gasto neto admitido, en concepto de promoción, con un importe máximo de 15.000 euros por entidad beneficiaria».

«2.C.– Comercialización de productos definidos en el Plan de Marketing de la Viceconsejería de Comercio y Turismo y cuya descripción aparece en la Página web de la Viceconsejería, [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo).

Los proyectos presentados deberán incluir necesariamente un plan estratégico y operacional para los próximos 2 años en los que se definen la meta y objetivos así como las estrategias previstas para alcanzar dichos objetivos».

«4.– No serán subvencionables:

e) Los gastos relativos a la elaboración de publicaciones turísticas de entidades adheridas a la Red Vasca de Oficinas de Turismo-Itourbask y que hayan sido presentados a la justificación a través del Convenio existente.

f) Los gastos correspondientes a regalos promocionales».

**Artículo tercero.**– Se modifican los puntos 1 y 2 y se añade el párrafo f) al artículo 6 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactados en los siguientes términos:

«1.– La realización de las solicitudes, requerimientos, notificaciones y demás gestiones implicadas en esta Orden se podrá efectuar por medios electrónicos, de conformidad con el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos (BOPV n.º 22, de 31 de enero de 2008).

En el caso de que la tramitación escogida sea telemática, el acceso al modelo de solicitud, su presentación en la Administración, el acceso al expediente, y demás trámites se realizarán en la web [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejería de Comercio y Turismo.

La solicitud incorporará, además de la firma electrónica reconocida de la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante, toda aquella documentación que haya de acompañarse a la solicitud y la que pueda ser requerida por la Administración, en los términos dispuestos en el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos turística».

«2.– Alternativamente a la opción anterior, también se podrá formular la solicitud por medio de ins-

egin ahal izango da eskabidea; bide hori aukeratuz gero, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko da, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen Legean aurreikusitako baliabideen arteko edozeinen bitartez.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren edozein Lurralde Ordezkaritzan eskabidearen eta formularioen eredu bat eskanikoa da, edo bestela [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo) web-orrian eskura daiteke eredu hori, behin laguntzen deialdia egin ondoren Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazenaren bitartez.

Erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duenak sinatuko du eskabidea.

«f) Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharra eguneratuak izan beharko dituzte erakunde onuradunek.

**Laugarren artikulua.**— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 11. artikuluko f) eta g) idatz-zatiak aldatu dira, eta artikulu horri h) idatz-zatia erantsi zaio. Horren ondorioz, honela geratu dira idatzita:

«f) Onuradunak nahitaez aipatu beharko du Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lankidetza, Sailburuordetzaren web-orrian ([www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo)) deskribatutako «Euskadi, goza ezazu» turismo-marka eta/edo eskuliburu jasotako aplikazioak zabaltzearen bidez. Halaber, proiekta jasotzeko erabili diren sustapen-euskarrien ale bat entregatu beharko da, hala nola, azterketak, liburuxkak, programak, DVDA eta abar; baita proiekta egin dela egiazatzeko eskatzen den beste edozein ere, noiz eta proiekta egin dela justifikatzeko unean».

«g) Onuradunak nahitaez ezarri beharko du Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren turismo-orri ofizialarekiko esteka bere web-orrian: [www.euskaditurismo.net](http://www.euskaditurismo.net)».

«h) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintza argitaratzeko edo iragartzeko edo ekintza horri publizitatea emateko, bi hizkuntza ofizialak erabiltzea. Aldi berean, pertsona fisikoek eta juridikoek diru-laguntzaren erakunde onuradunarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da».

**Bosgarren artikulua.**— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren

tancia dirigida a la Dirección de Turismo, y se presentará en la correspondiente Delegación Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por cualquiera de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la web: [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo), una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

La instancia será firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante».

«f) Las entidades beneficiarias tendrán que acreditar estar al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social».

**Artículo cuarto.**— Se modifican los apartados f) y g) y se añade el apartado h) al artículo 11 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactados en los siguientes términos:

«f) La entidad beneficiaria deberá necesariamente hacer mención de la colaboración del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, mediante la difusión de la marca turística «Euskadi saboréala» y/o las distintas aplicaciones recogidas en su manual, y cuya descripción aparece en la Página web de la Viceconsejería, [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo). Asimismo se hará entrega de al menos un ejemplar de aquellos soportes promocionales en que se haya plasmado el proyecto, tales como estudios, folletos, programas, DVD, etc.; así como de cualquier otro que se solicite para verificar la realización del proyecto, en el momento de la justificación de la realización del mismo».

«g) La entidad beneficiaria deberá necesariamente establecer en su web un enlace con la página oficial de turismo del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco: [www.euskaditurismo.net](http://www.euskaditurismo.net)».

«h) Utilizar las dos lenguas oficiales en la publicación, anuncio y publicidad de acción relacionada con la actividad subvencionada. Al mismo tiempo, se garantizará el derecho que tienen las personas físicas y jurídicas en sus relaciones con la entidad beneficiaria de la subvención a utilizar tanto el euskera como el castellano».

**Artículo quinto.**— Se modifican los puntos 1 y 3 del artículo 13 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo,

2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 13. artikuluko 1. eta 3. puntuak aldatu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«1.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak egin osten, betiere diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu den urtearen hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen, onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du dagokion Lurralde Ordezkaritzan:

a) Diruz lagundutako projektua gauzatzeari buruzko azalpen-memoria, eta beharrezkoa bada, prentsatxosten bat. Memoria genero-ikuspegien arabera erredaktatuko da, lengoia modu inklusiboan erabiliz eta datuak sexuaren arabera bereiziz (4/2005 Legearen 3.4, 18.4 eta 16. art.).

b) Fakturen koadroa, behar bezala zenbakituak eta diruz lagundutako jardun bakoitzarekin behar bezala lotuak; factura bakoitzarentzat, honako informazio hau zehaztuko da: fakturaren data, hornitzailea, kontzeptua eta zenbatekoa (BEZA barnean hartu gabe). Behar bezala konformatutako fakturak bakarrik onartuko dira, eta betiere horien gastu-kontzeptuak laguntzaren xedearekin argi eta garbi, eta berariaz, lotuta badaude. Fakturen eredu bat eskura daiteke [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo) web-orrian.

c) Behin betiko fakturen fotokopia konpultsatuak, fakturen koadroan zehaztutakoekin bat etorri beharko dutenak, edo arduradunaren edo horretarako baimendutako pertsonaren ziurtagiria, fakturen koadroan bildutako datuen egiazkotasuna frogatzuz. Gastuen egiaztapena factura elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, betiere zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte.

d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrok egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia.

«3.– Lurralde Ordezkaritzek egiaztatu egin beharko dute gauzatu egin direla diru-laguntzen helburu diren jardunak, aurkeztutako euskarri-materiala eta justifikatutako gastuak aztertzugatuz egiaztatu ere; eta, halaber, Agindu honetan ezarritako betebeharrok bete direla. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen dituzten informazio eta dokumentuak eskatu ahal izango dituzte, Agindu honen 6. artikuluan aipatutako zinpeko aitorpenean jasotako datuak egiaztatzeko bereziki. Alderdi horiek guztiak egiaztatu ostean, Lurralde Ordezkaritzek txosten bat bidali beharko diote Turismo Zuzendaritzari, non diru-laguntza likidatzeko proposatuko den, betiere egindako gastuarekin bat etorriz.

Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa likidatzeko, laguntza emateko ebazpenean zehaztutako finantzazio-ehunekoa aplikatuko zaio benetan egindako eta onuradunak justifikatutako jarduera edo gastuaren kostuari.

por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactados en los siguientes términos:

«1.– La entidad beneficiaria una vez realizadas las actuaciones subvencionables, y, en cualquier caso, antes del 1 de marzo del año siguiente al de la presentación de la solicitud de la subvención, deberá presentar, ante la Delegación Territorial correspondiente, la siguiente documentación:

a) Memoria explicativa de la ejecución del proyecto subvencionado incluyendo, en su caso, un dossier de prensa. La memoria se redactará con enfoque de género, haciendo un uso inclusivo del lenguaje y desagregando por sexo los datos pertinentes. Artículo 3.4, 18.4 y 16 de la Ley 4/2005.

b) Cuadro de facturas en el que, debidamente numeradas y relacionadas con cada una de las actuaciones subvencionadas, se detallará para cada una de ellas la información siguiente: fecha de emisión, empresa proveedora, concepto e importe (IVA no incluido). Sólo se aceptarán aquellas facturas que estén debidamente conformadas y cuyos conceptos de gastos estén inequívocamente y expresamente relacionados con el objeto de la ayuda. Un modelo podrá obtenerse en la web: [www.euskadi.net/turismo](http://www.euskadi.net/turismo).

c) Fotocopias compulsadas de las facturas definitivas, que tendrán que corresponderse con las especificadas en el cuadro de facturas, o bien, certificado de la persona responsable o autorizada para ello en el que se acredite la veracidad de los datos recogidos en el cuadro de facturas. La acreditación de los gastos también podrá hacerse mediante facturas electrónicas, siempre que cumplan los requisitos exigidos para su aceptación en el ámbito tributario.

d) Copia del certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social».

«3.– Las Delegaciones Territoriales comprobarán que las actuaciones objeto de ayuda han sido realizadas –mediante el análisis de los gastos justificados y material soporte aportado– y que cumple, en definitiva, con los requisitos establecidos en la presente. Así mismo, podrán requerir cuanta documentación e información complementaria consideren necesaria y, particularmente, para la comprobación de los datos recogidos en la declaración jurada a la que hace alusión el artículo 6 de esta Orden. Una vez verificados todos los aspectos mencionados, las Delegaciones Territoriales emitirán un informe que se remitirá a la Dirección de Turismo proponiendo la liquidación de la subvención que corresponda, de conformidad con el gasto realizado.

El importe definitivo de la subvención se liquidará aplicando al coste de la actividad o gasto efectivamente realizada y justificado por el beneficiario, el porcentaje de financiación definido en la resolución de concesión.

Hala eta guztiz ere, Lurralde Ordezkaritzak onartutako gastua emakida-ebazpenean onetsitakoa baino txikiagoa bada, Turismo Zuzendaritzan dagokion diru-laguntzaren likidazioa proposatu baino lehen, hamabost eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio erakunde interesdunari, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioa konpon dezan».

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurreko deialdiaren epearen amaieratik Agindu honen indarraldiraino erabili diren turismo-marka guztiak onartuko dira.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Ahalmena ematen zaio Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren ebazenak eman ditzan eta aginduera inguruaren sortzen diren zalantza zehatzak ebatz ditzan.

**Bigarrena.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 10a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza  
eta Turismoko sailburua,  
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

No obstante, si la gasto aprobado por la Delegación Territorial fuera inferior al aprobado en la resolución de concesión, antes de proponer a la Dirección de Turismo la liquidación de la subvención que corresponda, se dará un trámite de audiencia de quince días a la entidad interesada para que, en su caso, subsane la documentación aportada».

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Se aceptarán las distintas marcas turísticas que hayan convivido desde el periodo de finalización del plazo de la convocatoria anterior hasta el periodo de vigencia de la Presente Orden.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Se faculta a la Viceconsejera de Comercio y Turismo para dictar las resoluciones necesarias para la aplicación de esta Orden, así como para resolver las dudas concretas que con relación a la misma se susciten.

**Segunda.**— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de junio de 2010.

El Consejero de Industria, Innovación,  
Comercio y Turismo,  
BERNABÉ UNDA BARTUREN.